

**J<sup>U</sup>NDALECIO B<sup>I</sup>ZCARRONDO (BILINCH)**  
**ZERITZAION ITZ NEURLARIARI OROIMEN BAT.**

COMPOSICION PREMIADA EN LOS JUEGOS FLORALES DE ESTA CIUDAD CON  
**ACCÉSIT.**

Argi apur bat sutu zadazu  
 Apolo pensamentuban,  
 Lira sar baten soñuban doaiz  
 Abiya nadin kantuban;  
 Atozte musak, ere nigana,  
 Eguzkiyaren moduban,  
 Denen laguntzaz bana ditzadan  
*Bilinch-en* famak munduban.

Kendu baneio gañetik bera  
 Gordetzen duben arriya,  
 Esna eraingo nuke lotatik  
 Gizon beneragarriya;  
 Kantuz alchatu nainiyoke gaur  
 Oroikarri<sup>1</sup> bat berriya,  
 Bere gañean ikusi dediñ  
 Onratzen Euskal-erriya.

¿Bañan nik nola kanta nitzake  
 Bere baliyo aundiayak?  
 ¿Zertán bear det asi argitan  
 Jartzen beraren graziyak?  
 Nere moduban ezagututzen  
 Badute beste guziyak,  
 Bada illdako lotan naiz egon  
 Oroitzak dauzka biziak.

Penak maiz lotzen zutelarikan  
 Berez izanik alaiya,  
 Iñoi paltatzen ez baitzitzaion  
 Jolas berrirako gaiya;  
 Zuben choriyak bezela errez  
 Kantatutzeko doaiya,  
 Eta zan izdun berdingabe ta  
 Izkribalari galaiya.

¿Nón dira bere izkribu ezt  
 Eta kantacho gozoak?  
 ¿Nón beragandik jaikitzten ziran  
 Euskal itz baliosoak?  
 Ez dira iñoi oñpetu izan,  
 Guziyak daude osoak,  
 Denok dauzkagu ongi ikasi  
 Eta gogoan jasoak.

¿Nork etzitzaken artu gogoan  
 Aren grazizko esanak,  
 Berak aitzeko zaleturikan  
 Egoten bagiñan danak?  
 Kantatzen asten zanean igual,  
 Ingurueta ziranak  
 Bere jolasak aitzeagatik  
 Utzitzen zitzuten lanak.

Eta noizik bein azten zanean  
 Izkribu berriyak jartzen,  
 ¿Zér kantu eder etziran bere  
 Doaitik argitaratzen?  
 ¿Nork ez giñuzen sortu ordukoz  
 Ikasi eta kantatzen?  
 Zeñék ez, iñoi ez aztutzeko  
 Moduban, ¿gogoan artzen?

¿Nórk ez dakizki euskal-erriyan  
 Chomin zanaren kontuba,  
*Abere baten bizitza eta*  
*Kantuzko Juramentuba?*  
 Eta, zeñék ez, ere igualik  
 Ez duben pensamentuba,  
 Iñoi aztuko ez dan *Konchesi*  
 Aingerubaren kantuba?

(1) Monumento.

¿Nór zan gelditu euskal-erriyan  
Bañan, nór, ikasigabe,  
*Ja-jai* polit bat beraren ta,  
*Juana Vishenta Olabe?*  
Berakin kantu *Gaizki bizi naiz*  
*Eta illko banitz obe,*  
Eta... ¿zeiñ etzan egiñ *Izazu-*  
*nitzaz kupira-ren* jabe?

Oekin beste lan berarenak  
Gustagarriyak aiñ dira,  
Eziñ aspertu liteke berak  
Enzutez edo begira;  
Beste edozeiñ Errezumetan<sup>1</sup>  
Egiñak izan balira,  
Oraingoz eman ziyen guziyak  
Mundu osoari jira.

Euskal tokiya chikiya da ta  
Nonbait au dala medyo  
Etzan *Bilinch-en* famikan gizon  
Aundiyan mallara iyo;  
Baña pensatze nerearekiñ  
Arkitutzen naiz chit fiyo,  
Ez dala jakiñ, oraindik ongi,  
Ark zenbat zuben baliyo.

¿Bañan ni zertan ari naiz eziñ  
Egiñik bere pintura?  
¿Nola nezake merezi duben  
Ainbat famatu nik ura?  
Egunaz maiz ta gabaz askotan  
Jaio izan zait burura,  
Orren neurriko itz neurriaririk,  
Ez dala jaio mundura.

Nik ere igo naiya banuben  
Bere allegatokira,  
Bañan indarrak paltaturikan  
Eman izana naiz jira;  
Arranoaren<sup>2</sup> eta choriyen  
Egoak igualak ezdira,  
Gaur arkitzen naiz mirezturikan  
Arren lanari begira.

Eguzkiyaren gisan emanaz  
Disdiarizko argiyak,  
Moldetzat utzi izan zituben  
Gauza begiragarriyak;  
Euskera miñez zegoan denboran  
Egiñak dira guziyak,  
Ala euskerak, eta guk beti,  
Zorko dizkagu graziyak.

¿Nola etziran gauza aundiayak  
Jaikiko bere burutik  
Inza bezela doaiya jaisten  
Bazan argana zerutik?  
Guk nai bañan len utzirik bere  
Grazi zerukoak zutik,  
Erreiñu eder baten moduban  
Ezkutatu zan mundutik.

Aundiayak ziran bere graziyak  
Bañan baita ere penak,  
Ezin kontatu litezke iya  
Pasa izan zitubenak;  
Oek guretzat nola osatzen  
Dituben goien dageunak,  
Iñoi ez ditu banatzen baten  
Gañean, zori on denak.

Mundu berriya billatu zuben  
*Kolon*, egon zan katean,  
*Eskulano* bat beti arkitu  
Oizan atsekabe pean;  
*Zerbantes* preso, beso bakarra,  
Beti penaren artean,  
*Eta Kamoens* aundiya berriz,  
Ill zan eritei<sup>1</sup> batean.

Bati zerutik doai ta grazi  
Aundiayak jaisten bazaizka,  
Beren ordaintzan atsekabeak  
Ere azalduko zaizka;  
Jaunak berari zorion utsak  
Noski emango ezdizka,  
Charrakin onak gure artean  
Partitzen ditu erdizka.

¡O Bilinch! aundi, miragarriya  
 ¡O! Ill ziñana *martiri*,  
 ¡Zúk ere doai truke zenduben  
 Malkoa pranko isuri!  
 Gauza eder ta aundiak utzi  
 Zizkigutzulako guri,  
 Maitetasun bat denen partetik  
 Agertzen dizut gaur zuri.

Merezierak zauzkatelako  
 Leku altuban jarrya,  
 Zure burura ez naiz iristen  
 Artzeko bere neurriya,  
 Bada ustaitu bear nizuken  
 Tokian koroi berriya,  
 Zere oiñ alki ipintzen dizut  
 Kanta, *Oroimen-garriya*.

RAMON ARTOLA.

## EL BREBAJE MARAVILLOSO.

(CONCLUSION).

Cuando nota Fortun que la doncella se ha dormido ya en brazos de Morféo, con muy callado paso se aproxima y á su lado se sienta sobre el césped, ganoso de admirar á sus anchuras la divina belleza de la jóven. Su angélico semblante iluminado por el pálido lambo de lá luna, es el trasunto fiel de su alma hermosa: calma, bondad, pureza é inocencia respiran sus facciones adorables. Los suaves cefirillos se divierten con su preciosa cabellera de oro, cuyo color con el matiz subido del césped lozanísimo contrasta. En medio de su sueño la doncella ha separado el manto con las manos (pues su peso sin duda la fatiga), dejando de ese modo descubiertos los bien torneados brazos, cuya forma dibuja con verdad la estrecha manga, el levantado seno palpitante, y el primoroso cuello alabastrino. Con amor el de Gámiz la contempla, y al cielo eleva fervida plegaria pidiendo toda clase de venturas para la hermosa jóven; suplicando al Supremo Monarca de los hombres, que sea la existencia de la niña á perenne sonrisa semejante,